




Turismoen matrikulazioa handitu da EAEn

Turismoen matrikulazioa EAEn
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa




Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak argitaratu berri duen informazioaren arabera, **EAEn ia 2.300 auto saldu ziren aurtengo lehen hiruhilekoan, hau da, aurreko urteko aldi berean baino %2,7 gehiago**. Hala ere, bai eztatzen da saldutako unitateen kopurua oso urrun dagoela pandemiaren aurreko urteetan lortu ziren erregistroetatik.

Atzerritarren afiliazioak gora egiten jarraitzen du

Atzerritarren afiliazioak
Balio absolutua




Iturria: Gizarte Segurantza.

Martxoan, Gizarte Segurantzaren erregistratuta zeuden atzerritarren afiliazioen kopurua %9,0 igo zen, aurreko urteko aldi beraren aldean. Hain zuzen ere, atzerriko nazionalitatea duten pertsonen afiliazioak 92.693 izan ziren, serie historiko osoan lortutako erregistrorik handiena.

Langabezia tasa %7,9ra igo zen lehen hiruhilekoan

Langabezia tasa EAEn
Ehunekoa




Iturria: Eustat.

Eustatek berriki argitaratutako datuen arabera, **2024aren hasieran langabezia tasa %7,9 izan zen, aurreko hiruhilekoan baino zazpi hamarren altuagoa**. Igoera horiek gizonen tasan (%7,3tik %7,7ra igo zen) eta emakumeen tasan (%8,2ra aurreko %7,otik) hauteman ziren.

Landunen kopurua %1,8 hazi zen BJAREN arabera

Landunak EAEn
Lana duten pertsonak. Milakoak



Iturria: Eustat.

BJA inkestaren arabera, **2024ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko aldi beraren aldean, landunen kopurua %1,8 handitu zen**. Igoera horren ondorioz, 980.000 landun baino gehiago daude EAEn, 2008tik lortutako erregistrorik handiena. Igoera hori pixka bat handiagoa izan zen gizonen artean (%2,0) emakumeen artean baino (%1,7).